

Lur azpiko urak, egoera larrian 2050rako

[Nature aldizkariak argitaratu duen ikerketa baten](#) arabera, lur azpiko uren egoera kritikoa da jada, eta 2050erako oso larria izan daiteke. Gizakiok lur azpitik erauzten dugun ur-kantitatea hain handia izanik, murriztu edo eten egiten da akuiferoetatik hezegunetara eta beste ekosistema urtarretara egiten den ur-ekarpena; batzuetan, baita uraren fluxua alderantzizko noranzkoan gertatzeraino. Adituen ustez, kolokan jartzen ari da ekosistema urtar askoren osasuna.



Nekazaritza-lurak ureztatzea eta kontsumo urbanoa dira lur azpiko uren galera handiena eragiten duten aktibitateak. ARG.: Pixabay.

1960tik honako datuekin garatu duten eredu matematikoak argi utzi du jada lur azpiko uren ekarpena duten arto hidrografikoen % 20 dagoela egoera kritikoa, eta 2050erako % 42-79 egongo dela egoera horretan. Ikertzaileen ustez, gainera, akaso estimazio baikorregiak dira, ez baitute kontuan hartu populazioaren hazkundea eta garabidean dauden ekonomiek eragin dezaketen ur-eskaeraren goerarik. ●

Animalia basatien salerosketa % 40-60 handitu da

Science aldizkariak argitaratutako azken kalkuluen arabera, animalia-espezie basatien merkatua orain arte uste zena baino % 40-60 handiagoa da. Jada, munduko ugaztunen bost espezieetik bat eros daiteke bizitza basatiaren merkatuan. Ikertzaileek adierazi dute uste salerosketa horrek uste zena baino inpaktu handiagoa duela munduko biodibertsitatean, batez ere hegaztietan, ugaztunetan eta mehatxatuta dauden espezieetan. Hortaz, basabizitzaren salerosketaren aurkako neurriak hartzeko deia egin dute. ●



ARG.: Mabel Amber/Pixabay.